

Biztanleria okupatua hazi egin da, beste 4.100 okupatu gehiago baitaude, eta langabezia-tasa % 7,9ra jaitsi da, 2022ko hirugarren hiruhilekoan, Euskal AEn


Azken urtean, gora egin du okupatuaren kopuruak, 19.600 gehiago dira, eta behera langabeen kopuruak, 9.500 gutxiago dira

Euskal AEko lan-merkatuari buruzko 2022ko hirugarren hiruhilekoko datuek erakusten dute 4.100 okupatu gehiago daudela eta 6.800 langabe gutxiago aurreko hiruhilekoan baino, Eustaten datuen arabera. Hiruhileko honetan 82.400 langabe daudela kalkulatu da, eta 967.200 okupatu, 2022. urteko bigarren hiruhilekoan baino % 0,4 gehiago. Azken urtean, 19.600 okupatu gehiago izan dira eta 9.500 langabe gutxiago.

Euskal AEko langabezia-tasa % 7,9koa da, 2022ko bigarren hiruhilekoan baino ehuneko sei hamarren baxuagoa. Biztanleria okupatuaren eta langabearen bilakaeraren emaitza gisa, jarduerata % 56,2koa da 2022ko hirugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren baxuagoa. Azken urtean, langabezia-tasak 2021eko hirugarren hiruhilekoko % 8,8tik 2022ko hirugarren hiruhilekoko % 7,9ra egin du behera, ehuneko 0,9 puntu behera.

Euskal AEko 16-64 urte bitarteko biztanleen okupazio-tasa, sexuaren eta hiruhilekoaren arabera

Ehunekoa



Iturria: EUSTAT. Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko Inkesta

Lurraldeen arabera eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Bizkaian okupazioak gora egin du, 4.800 pertsona gehiago dira; Gipuzkoan, 200 gehiago, eta, Araban, behera egin du, 800 gutxiago baitira. Hiriburuei dagokienez, Bilbon 5.000 okupatu gehiago daude, baina, Donostian 300 gutxiago eta Gasteizen 1.200 pertsona gutxiago.

Okupazioaren gorakadarik handiena gizonen artean gertatu da (+2.100); emakumeen kasuan, 2.000 okupatu gehiago daude. Nazionalitateari dagokionez, okupatu atzeritarren kasuan, 4.700 okupatu gehiago daude (+% 5,8), eta espainiarren artean, 500 gutxiago (–% 0,1).

Okupazioak sektore guztietan egin du gora

Euskal AEko biztanleria okupatuak gora egin du lehen sektorean, 1.800 okupatu gehiago baitira (+% 24,3), industrian 900 gehiago (+% 0,5), zerbitzuen sektorean 800 gehiago (+% 0,1) eta eraikuntzan 700 gehiago (+% 1,2).

Okupazio-tasak, 16 eta 64 urte bitarteko pertsona okupatuen ehunekotan kalkulatuta adin horien guztizkoaren gainean, ehuneko 0,2 puntu egin du gora, aurreko hiruhilekoaren aldean, eta % 69,9koa da. Tasa hori % 73,3ra iritsi da gizonetan, eta % 66,6koa da emakumeetan.

Amaitutako ikasketa-mailari dagokionez, okupazio-tasak gora egin du bigarren mailako eta erdi-mailako ikasketak dituztenen artean (ehuneko 0,9 puntu), eta % 62,4koa da; hala ere, goi-mailako ikasketak dituztenen artean, okupazio-tasak 0,4 puntu egin du behera eta % 85,5koa da, eta, lehen mailako eta beheragoko ikasketak dituztenen artean, okupazio-tasak 0,5 puntu egin du behera, eta % 60,2koa da.

Nazionalitateari dagokionez, okupazio-tasa altuena nazionalitate espainiarra duten pertsonen artean dago (% 71,3), eta berdin eutsi dio aurreko hiruhilekoarekin alderatuta; atzerriko nazionalitatea dutenen artean % 58,3koa da (+2,5 puntu).

Lurralde historikoei dagokienez, okupazio-tasa altuena Gipuzkoakoa da, % 71,8koa, eta aurreko hiruhilekoaren aldean ehuneko 0,3 puntu gehiago. Gero, Arabakoa, % 69,2koa, aurreko hiruhilekoaren aldean ehuneko puntu erdi gutxiago. Eta, azkenik, Bizkaikoa; bertan, okupazio-tasak ehuneko 0,5 puntu egin du gora (% 69ra iritsi da).

1.400 etxe gutxiago daude kide aktibo guztiak langabezian dituztenak

2022ko hirugarren hiruhilekoan kalkulatzeko Euskal AEn 902.400 etxe inguru daudela eta, haietatik, heren batek pertsona aktiborik ez duela, aurreko hiruhilekoan baino 1.600 etxe gutxiago; hamar etxetik ia seitan pertsona aktibo guztiak daude okupatuta, 5.300 familia gehiago, eta, gainera, etxeko pertsona aktibo guztiak langabezian dituzten 29.000 etxe daude, aurreko hiruhilekoan baino 1.400 gutxiago.

2022ko hirugarren hiruhilekoak % 7,9ko langabezia-tasa du, aurreko hiruhilekoan baino ehuneko 0,6 puntu gutxiago

Euskal AEko langabe kopurua, alegia, enplegua bilatzen ari den, bilaketarako kudeaketa aktiboak egiten dituen eta, gainera, lan egiteko disponibilitatea duen pertsona kopurua, urteko hirugarren hiruhilekoan, 82.400 dela kalkulatzeko, aurreko hiruhilekoan baino 6.800 pertsona gutxiago. Emakume langabeen kolektiboa 42.000 pertsona dira; 2.400 pertsonatan egin du behera, eta, gizon langabeen kopuruak 4.400 egin du behera, guztira 40.400era arte hiruhilekoan.

2022ko hirugarren hiruhilekoko datuen arabera, langabezia-tasa % 7,9koa da, aurreko hiruhilekoan baino ehuneko 0,6 puntu baxuagoa. Gizonezkoen langabezia-tasa % 7,4koa da

(ehuneko 0,8 puntu gutxiago) eta emakumezkoenak ehuneko 0,5 puntu egin du behera, % 8,3ra arte.

Ikasketei dagokienez, langabezia-tasaren jaitsiera handiena ikasketa-maila altuena bigarren mailako eta erdi mailako ikasketak amaitu dituztenen artean izan da (ehuneko -1,8 puntu), langabezia-tasa % 9,2koa izanik; lehen mailako ikasketak eta beheragokoak amaitu dituztenen artean, langabezia-tasak ehuneko 0,6 puntu egin du behera, eta % 11,1koa da, eta, azkenik, goi-mailako ikasketak dituztenen artean, langabezia-tasak ehuneko 0,5 puntu egin du gora, eta % 4,9koa da.

Nazionalitateari dagokionez, langabeen kopuruak behera egin du nazionalitate espainiarra dutenen artean, eta 4.900 pertsona gutxiago dira (64.400, guztira). Nazionalitate atzerritarra dutenen artean, 1.900 gutxiago dira; guztira, 18.000 langabe.

Lurralde historikoei dagokienez, Bizkaian langabe kopuruak behera egin du, eta 5.500 gutxiago dira, eta langabezia-tasak ehuneko puntu bat egin du behera, % 8,3koa izanik. Arabak 13.200 langabe ditu, eta, bertan, langabeziak behera egin du (1.200 gutxiago) eta langabezia-tasak ehuneko 0,6 puntu egin du behera, % 8,4ra arte. Gipuzkoan, langabe kopuruak behera egin du eta 100 gutxiago dira, eta langabezia-tasa % 6,9koa da; hamarren bat egin du behera aurreko hiruhilekoaren aldean.

Hiriburuei dagokienez, langabeziak, Bilbon, behera egin du, eta 3.500 langabe gutxiago daude, bai eta Gasteizen ere, 900 gutxiago baitaude. Donostian, berriz, langabeziari eutsi egin zaio, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta.

EUROSTATen –Europar Batasuneko Estatistikako Bulegoa– datuen arabera, 2022ko abuztuan, Europar Batasuneko langabezia-tasa (urtaroen arabera) ez dena) % 6koa izan da eta, Espainiakoa, % 12,4koa.

Azken urtean, pertsona okupatuak kopuruak % 2,1 egin du gora eta langabezia-tasak % 8,8tik % 7,9ra egin du behera

Euskal AEko biztanleria okupatuak kopuruak % 2,1 egin du gora, 19.600 pertsona gehiago 2021eko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, eta langabezia-tasak ehuneko 0,9 puntu egin du behera (% 8,8tik % 7,9ra); beraz, 9.500 pertsona gutxiago daude langabezia-egoeran Euskal AEn, 2021eko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta.

Hiruhilekoko batez besteko afiliatuak % 96,8 okupatuta daude, LANEren irizpideen arabera.

Euskal AEn hiruhilekoan, batez beste, 918.400 afiliatu daudela zenbatesten da, hiruhilekoan lan egindako egun kopuruaren arabera haztatutako Euskal AEko biztanle eta Gizarte Segurantzako afiliatu. Haietatik, % 96,8 okupatuak dira, Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) irizpideen arabera, zeinak baitira BJAk darabiltzanak; beraz, 888.700 lagun.

BJAren LANE okupatuak artean, % 4 ez dira Gizarte Segurantzako afiliatu (38.400), funtzionarioen mutualitate publikoetakoak direlako edo beste egoera batzuetan daudelako.

Langabeen % 35,2 ez daude Lanbiden langabe erregistratu gisa

Euskal AEn zenbatesten da 94.200 langabe daudela Lanbiden erregistratuta hiruhilekoan, batez beste; alegia, Euskal AEn bizi eta inkesta egin den unean langabeziako kategoria kalifikaturen batean daudela Lanbiden erregistratuta. Haietatik, % 52,9 langabeak dira, LANEren definizioaren arabera (49.800 pertsona). BJAren LANE langabeen artean, % 35,2 ez daude langabe moduan

erregistratuta Lanbiden (29.000 pertsona), baina enplegu-eskatzailen beste kategoria batzuetan egon daitezke.

Euskal AEko jardueraren arabera biztanleria. 2022/III

	2022/III	2022/II	t/t-1	
	Mila	Mila	Mila	%
16 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA	1.868,4	1.865,6	+2,8	0,2
BIZTANLERIA AKTIBOA	1.049,6	1.052,3	-2,7	-0,3
Gizonak	546,6	548,9	-2,3	-0,4
Emakumeak	503,0	503,4	-0,4	-0,1
Araba/Álava	158,1	160,0	-1,9	-1,2
Bizkaia	544,8	545,5	-0,7	-0,1
Gipuzkoa	346,7	346,8	-0,1	-0,0
Vitoria-Gasteiz	118,4	120,4	-2,0	-1,7
Bilbao	165,5	164,1	+1,4	+0,9
Donostia / San Sebastian	87,9	88,1	-0,2	-0,2
Beste udalerriak	677,8	679,7	-1,9	-0,3
Espainiarrak	945,4	950,8	-5,4	-0,6
Atzerriko nazionalitatea	104,2	101,5	+2,7	+2,7
BIZTANLERIA LANDUNA	967,2	963,1	+4,1	+0,4
Gizonak	506,2	504,1	+2,1	+0,4
Emakumeak	461,0	459,0	+2,0	+0,4
Araba/Álava	144,8	145,6	-0,8	-0,5
Bizkaia	499,6	494,8	+4,8	+1,0
Gipuzkoa	322,8	322,6	+0,2	+0,1
Vitoria-Gasteiz	107,5	108,7	-1,2	-1,1
Bilbao	153,3	148,3	+5,0	+3,4
Donostia / San Sebastian	82,1	82,4	-0,3	-0,4
Beste udalerriak	624,3	623,6	+0,7	+0,1
Espainiarrak	881,0	881,5	-0,5	-0,1
Atzerriko nazionalitatea	86,2	81,5	+4,7	+5,8
Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	9,2	7,4	+1,8	+24,3
Industria	195,6	194,7	+0,9	+0,5
Erakuntza	57,3	56,6	+0,7	+1,2
Zerbitzuak	705,1	704,3	+0,8	+0,1
Soldatakoa	793,2	787,6	+5,6	+0,7
Lan-kontratu mugagabearekin	584,5	568,9	+15,6	+2,7
- Aldi baterako kontratuarekin eta kontraturik gabe	208,7	218,7	-10,0	-4,6
Soldatarik gabek	174,0	175,4	-1,4	-0,8
BIZTANLERIA LANGABEA	82,4	89,2	-6,8	-7,6
Gizonak	40,4	44,8	-4,4	-9,8
Emakumeak	42,0	44,4	-2,4	-5,4
16 - 24 urte	12,3	12,1	+0,2	+1,7
25 - 44 urte	31,1	36,0	-4,9	-13,6
45 urte eta gehiago	39,1	41,1	-2,0	-4,9
Araba/Álava	13,2	14,4	-1,2	-8,3
Bizkaia	45,2	50,7	-5,5	-10,8
Gipuzkoa	24,0	24,1	-0,1	-0,4
Vitoria-Gasteiz	10,8	11,7	-0,9	-7,7
Bilbao	12,2	15,7	-3,5	-22,3
Donostia / San Sebastian	5,8	5,8	+0,0	+0,0
Beste udalerriak	53,5	56,1	-2,6	-4,6
Espainiarrak	64,4	69,3	-4,9	-7,1
Atzerriko nazionalitatea	18,0	19,9	-1,9	-9,5
BIZTANLERIA EZ-AKTIBOA	818,8	813,4	+5,4	+0,7
ETXEGUNEAK	902,4	902,2	+0,2	+0,0
Pertsona aktiboekiko familia-etxeak	605,6	603,8	+1,8	+0,3
Denak okupatuak	536,8	531,5	+5,3	+1,0
Denak langabeak	29,0	30,4	-1,4	-4,6
Pertsona aktiborik gabeko familia-etxeak	296,8	298,4	-1,6	-0,5

Aurtengo urtearen datuak behin-behinekoak dira eta aurreko urtekoak ilusatu dira urte horretako urtarilaren oinarri 1eko populazioaren gaueko zenbakien arabera.

t/t1 Behatutako azken hiru hilabetearen aldakuntza aurreko hiru hilabetearen aldean.

Data 2022ko Urriaren 21a

Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren Arabera sailkatzeko inkesta

Euskal AEko jardueraren araberako biztanleria. Tasa nagusiak. 2022/III

	2022/III	2022/II	t/t-1 (p.p.)
JARDUERA-TASA	56,2	56,4	-0,2
Gizonak	61,0	61,3	-0,3
Emakumeak	51,7	51,9	-0,2
Araba/Álava	56,8	57,7	-0,9
Bizkaia	55,6	55,7	-0,1
Gipuzkoa	56,9	57,0	-0,1
Vitoria-Gasteiz	56,7	58,0	-1,3
Bilbao	55,7	55,2	+0,5
Donostia / San Sebastian	56,6	56,8	-0,2
Beste udalerriak	56,1	56,4	-0,3
Espainiarrak	55,1	55,5	-0,4
Atzerriko nazionalitatea	68,4	67,0	+1,4
OKUPAZIO-TASA (16 urtetik 64ra)	69,9	69,7	+0,2
Gizonak	73,3	73,0	+0,3
Emakumeak	66,6	66,3	+0,3
Araba/Álava	69,2	69,7	-0,5
Bizkaia	69,0	68,5	+0,5
Gipuzkoa	71,8	71,5	+0,3
Vitoria-Gasteiz	68,3	69,5	-1,2
Bilbao	70,3	68,6	+1,7
Donostia / San Sebastian	74,2	73,9	+0,3
Beste udalerriak	69,6	69,4	+0,2
Espainiarrak	71,3	71,3	+0,0
Atzerriko nazionalitatea	58,3	55,8	+2,5
LANGABEZIA TASA	7,9	8,5	-0,6
Gizonak	7,4	8,2	-0,8
Emakumeak	8,3	8,8	-0,5
16 - 24 urte	21,3	20,7	+0,6
25 - 44 urte	7,1	8,2	-1,1
45 urte eta gehiago	7,0	7,4	-0,4
Araba/Álava	8,4	9,0	-0,6
Bizkaia	8,3	9,3	-1,0
Gipuzkoa	6,9	7,0	-0,1
Vitoria-Gasteiz	9,1	9,7	-0,6
Bilbao	7,4	9,6	-2,2
Donostia / San Sebastian	6,6	6,5	+0,1
Beste udalerriak	7,9	8,2	-0,3
Espainiarrak	6,8	7,3	-0,5
Atzerriko nazionalitatea	17,3	19,6	-2,3
INAKTIBOTASUN TASA	43,8	43,6	+0,2

Aurtengo urtearen datuak behin-behinekoak dira eta aurreko urtekoak ikuskatu dira urte horretako urtarilaren oinarri 1eko populazioaren gaurkotzearekin.

t/t1 Behatutako azken hiru hilabetearen aldakuntza aurreko hiru hilabetearen aldean

p.p. = Aldea portzentajeazko puntutan

Data 2022ko Urriaren 21a

Iturria: Eustat. Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko Inkesta

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62